

5/22

irizpena

14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzei buruzko

Dekretu-proiektuaren buruzkoa

Bilbon, 2022eko martxoaren 21ean



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Irizpena 5/22

I.- AURREKARIAK

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Berdintasun Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren idazki bat erregistratu zen 2022ko otsailaren 28an. Horren bidez, 14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatze laguntzen Dekretu Proiektuari buruzko txostena eskatu zuen, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1.b). artikuluan ezarritakoaren arabera.

Dekretuaren xedea da, Eusko Jaurlaritzak, familia eta lan bizitza uztartzeko politikaren barruan, familia politikaren arloan eskumena duen sailaren bidez, 14 urte bete arte seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeagatik sortutako Gizarte Segurantzako kotizazioak ordaintzeko ematen dituen laguntzak erregulatzea.

Berehala bidali genien Batzordeko osoko bilkurako kide guztiei Dokumentu horren kopia, beraien proposamenak eta iritziak bidal zitzaizkien, eta guk horiek guztiak dagokion Lan Batzordeari bidal geniezazkion, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamendu Araudian ezarritakoari jarraituz. Gizarte Garapeneko Batzordea 2022ko martxoaren 17an bildu zen, eta hartutako erabakiak kontuan hartuz, Irizpen Proiektu hau egin zuen, Batzordeak martxoaren 21ean egindako Osoko Bilkuran aurkez zezan. Bilkura horretan aho batez onartu zuten.

II.- EDUKIA

Legearen Aurreproiektuaren testuak 17 artikulua, 2 xedapen iragankor, 1 indargabetzaile eta 2 azken xedapen ditu.

Zioen azalpena

Seme-alabak zaintzeko langileak kontratatze laguntzak uztailaren 118/2007 Dekretuaren bidez jarri ziren martxan lehendabizi. Horien bidez, lan eta familia bizitza uztartzeko neurriak arautzen ziren. Harrezkero, laguntza-lerro horrek zenbait moldaketa eta hobekuntza izan ditu.

Hamalau urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatze laguntzen Dekretu proiektu hau, abenduaren 12ko 13/2008 Legean, familiei laguntzeari buruzkoan -II. titulua, II. kapitulua, 15. artikulua-, oinarritzen da. Lege horrek, zenbait laguntza ekonomiko ezartzen ditu, "14 urtetik beherako seme-alabak etxean zaintzeko, pertsona bat kontratatze laguntza gastuak ordaintzen laguntzeko".

Gaur egun, urriaren 22ko 164/2019 Dekretuaren V. Kapitulan, familia eta lan bizitza uztartzeko laguntzeari buruzkoan, arautzen dira laguntza horiek, abuztuan 3 urte betetzen dituzten seme-alabak zaintzeko, langileen kontratazioa diruz lagunduz.

EAEko familiei Laguntzeko erakunde arteko III. Plana ebaluatze txostenak (2011-2015), lan eta familia bizitza uztartzeko laguntzen eredia hobetu behar zela ezarri zuen, ahultasun egoera berezian dauden familiei babes handiagoa emanez.

Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta Eudel-ek Familien eta Haurren aldeko Euskal Ituna sinatu zuten 2018ko urtarrilean. Itun horren bidez, sinatu zuten erakundeek, euskal gizarteak aurre egiten dizkion erronkekin konpromisoa gain hartzen zuten. Horien artean daude jaiotze-tasa baxuak, ezinbesteko aukera-berdintasuna edo gizarte arduratsua bultzatzea.

Geroxeago (2018ko ekainaren 19an), Eusko Jaurlaritzak Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Plana

onartu zuen. Planaren 2. ardatzak xede hau ezartzen du: gurasoek beharrezko denbora ematea seme-alabekin, gizarte-denbora hobeto antolatzea sustatuz, familien beharrei erantzuteko eta gizarte-antolaketa arduratsua errazteko.

Familiei laguntzeko erakunde arteko IV. Planak euskal familien egoera aztertu zuen, eta horren arabera, jaiotze-tasak oso baxuak ziren, pertsonak beren familia-proiektua hastean eta nahi duten seme-alaba kopurua izateko dituzten eragozpenengatik nagusiki. Oro har, gizartean, seme-alabak dituzten familiak, zailtasun ekonomiko handienak izaten dituztenak direla adierazi zuen.

COVID-19 osasun-larrialdi egoerak euskal familien ekonomian eta gizartean izan zuen eraginari premiazko erantzuteko, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak 2021eko otsailaren 9an ezarritako Agindua argitaratu zen. Horren bidez, laguntzen deialdia egin zen, 2020/2021 ikasturtean 3 eta 14 urte arteko seme-alabak zaintzeko langileak kontratatuzko.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak 0 eta 14 urte arteko seme-alabak zaintzeko langileen kontratazioa modu iraunkorrean diruz laguntzea erabaki du. Horrez gain, zaintzaileak kontratatzeagatiko familientzako laguntzei buruzko arautegi osoa legezko gorputz batean bakarrik bateratu zuen.

Xedapenak

1. artikulua. Xedea.

2. artikulua. Kontzeptuak

3. artikulua. Diruz lagun daitezkeen jarduketak eta finantza daitezkeen gastuak.

4. artikulua. Dekretuaren xedea betetzeko baliabide ekonomikoak eta laguntzak emateko prozedura.

5. artikulua. Laguntzaren zenbatekoa eta finkatzeko irizpideak.

Laguntzaren zenbatekoa ezartzeko, enplegatzaileak, seme-alaba adingabeen zaintzailak kontratatzeagatik Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean ezarritako Etxeko Langileen Sistema Bereziari ordaindutako kuotak oinarritzat hartuko dira. Horrela, barne hartuko dira, bai enplegatzailearen konturako kuota, bai langilearen konturako kuota.

Aipatutako oinarri horretan, familia-errenta estandarizatuaren arabeko ehuneko jakin bat aplikatuko da:

≤ 20.000 euro bada, % 100 diruz lagunduko zaio.

20.000 baino handiagoa eta ≤ 50.000 euro artekoa bada, % 75 diruz lagunduko zaio.

> 50.000 euro bada, % 25 diruz lagunduko zaio.

6. artikulua. Familia-errentaren maila kalkulatzeko.

7. artikulua. Onuradunak eta laguntzaren onuraduna izateko baldintzak

Onuraduna izateko, besteak beste, gurasoek familia unitatearen barruan egon behar dute:

- Etxearen titular gisa agertu behar du seme-alabak zaintzeko kontratatutako langilearen Gizarte Segurantzako kotizazioa jasotzen den dokumentuan.
- Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan bizitzeaz gain, hango erroldan agertu behar du zaintzailea kontratatzen den seme edo alabarekin batera. Salbuespen gisa, ez da eskatzen semearekin edo alabarekin erroldatuta egotea, zaintza partekatua bada.
- Bere edo besteren konturako ordainpeko jarduera badu, edo lan egiteko ezintasun iraunkor absolutua edo baliaezintasun handia onartu badiote. Halako baldintzak ere eskatu ahal zaizkio, baldin baleude, harekin batera familia-unitatea osatzen duen amari edo aitari.
- Duen lanaldia jarduera garatzen duen sektoreko lanaldi osoarekin bat etortzea. Halako baldintza ere eskatu ahal zaio, baldin baleude, harekin batera familia-unitatea osatzen duen amari edo aitari. Baldintza hori, kasu hauetan salbuetsita egongo da:
 - guraso bakarreko familiak
 - familia ugariak
 - Mendekotasun larriko, mendekotasun handiko edo % 50 baino handiagoko desgaitasun egoeran dagoen kideren bat duten familia unitateak
 - Genero-indarkeria jasan duen kideren bat duten familia-unitateak

Kasu horietan, gurasoetako bat, lanaldi murrizketan eta kontratazio partzialean egotea onartuko da, betiere % 50eko edo hortik gorako lanaldia bada, jarduera egiten duen sektoreko lanaldi osoaren aldean.

 - Gizarte Segurantzaren arautegiaren barruan, jaiotzagatik edo adingabea zaintzeagatik lan-kontratua etenda ez badu, edo enplegu-erregulazioko espediente oso edo partzialik ez badu. Halako baldintza ere eskatu ahal zaio, baldin baleude, harekin batera familia-unitatea osatzen duen amari edo aitari.

8. artikulua. Baldintzak egiaztatzeko eskatutako agiriak.

9. artikulua. Laguntza eskaerak eta laguntza espedientearen izapidetze elektronikoa.

Eskaera aurkezteko eta izapidetzeko baliabide elektronikoak erabiliko dira.

10. artikulua. Epeak eta faseak.

11. artikulua. Eskaera zuzentzea eta hobetzea.

12. artikulua. Kudeaketa, ebazpena, ebazteko eta jakinarazteko epeak, eta baliabideak.

13. artikulua. Laguntzaren ordainketa.

Laguntza ordaindu ahal izateko, ezinbestekoa da onuraduna Ekonomia eta Ogasun Sailaren hirugarrenen erregistroan zuzen alta emanda egotea.

14. artikulua. Onuradunen betebeharrak.

15. artikulua. Ez-betetzeak eta diru-itzultzeak.

16. artikulua. Beste laguntza batzuekiko lehia.**17. artikulua. Ikuskapena eta kontrola.****XEDAPEN IRAGANKORRAK**

Lehen xedapen iragankorrak ezartzen du seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeagatik emandako laguntzek, edo familia eta lan bizitza uztartzeko laguntzei buruzko urriaren 22ko 164/2019 Dekretuaren V. Kapitulua babespian izapidetzen ari direnak, arautegi horri jarraituko diotela.

Bigarren xedapen iragankorrak ezartzen du 2021eko uztailaren 1 eta 2021eko abenduaren 31 artean sortutako etxeko langileen kotizazioak 2022. urtean zehar eskatu ahalko direla.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen dira urriaren 22ko 164/2019 Dekretuaren, familia eta lan bizitza uztartzeko laguntzei buruzkoaren, 1 d) eta V. Kapitulua, seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeagatik laguntzei buruzkoak; baita Dekretu honen edukiaren aurka egiten duten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena. Arautegiaren garapena.

Bigarrena. Indarrean jartzea.

III.- GOGOETA OROKORRAK

1. Testuinguru politiko eta arau-emailea

Abenduaren 12ko 13/2008 Legeak, familiei laguntzekoak (FLL, aurrerantzean), familia politika integral baterako esparrua eta oinarriak ezartzea du helburu, familiaren eta haren kideen ongizatea eta bizikaltatea hobetzeko. Halaber, bere helburua da familiak babestea, artatzea eta laguntzea. Horretarako, indarreko neurriak modu koherente batean antolatzen ditu, autonomia-erkidegoan, haien alde, eta beste laguntza-neurri batzuk erregulatu.

Aurrekoarekin bat, aipatutako legeak ezartzen du EAEko familia politikek eta haren barruan hartutako neurrien multzoek, besteak beste, helburu hauek izango dituztela: familia mota guztien eskubideak sustatzea eta babestea, haien ongizate maila hobetzea; pertsonak bere familia proiektua hasteko eta nahi duten seme-alaba kopurua izateko izan dituzten eragozpenak pixkanaka kentzea edo murriztea; familia eta lan erantzukizunak bateratzen laguntzea; emakumea lan merkatuan sartzea eta haren jarduera profesionala garatzea; gizonek eta emakumeek familia esparruan dituzten erantzukizunak bateratzen laguntzea; bereziki seme-alaba adingabeen zainketan eta hezkuntzan, eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen arretan bereziki.

Legeak bultzatu nahi duen familia eredua da kideen artean autonomia eta errespetua, eta bikoteen berdintasuna ezinbestekotzat jotzen dituen baldintzak kontuan hartzen dituena. Horren arabera, norberaren errealizazioa lortzeko aukera berak ditu bikoteko kide bakoitzak. Familiaren nahitaezko aldaketa horrek, norberaren, familia eta lan bizitza bateratzea dakar. Batera hori errazteko, FLLk laguntza baliabide eta zerbitzuak hedatzea eta finkatzea sustatzeaz gain, zenbait zuzeneko languntza

ekonomiko ere ezartzen ditu, aipatutako seme-alabak etxean zaintzeko pertsona bat kontratatzeagatik sortutako gastuak ordaintzen laguntzeko, familien bizitza pertsonala, familia eta lan bizitza bateratzea errazagoa izan dadin.

Bestalde, XII. Legealdi honetako (2020-2024) Gobernu Programak, 85. konpromisoan, helburu hau ezartzen du: semea-alabak dituzten familiei laguntzeko estrategia integrala garatzea eta jaiotzak sustatzea. Horretarako, uztartze erantzunkidea bultzatzea aurreikusten da, lan bizitza eta gurasotasun positiboa uztar daitezen sustatzen duten neurrien bidez.

Aipatu dugun moduan, gaur egun, 3 urte arteko seme-alaben zaintzaileak kontratatzeko laguntzak 164/2019 Dekretuaren V. kapituluaren arautzen dira. Laguntza ekonomikoak dira, eta Eusko Jaurlaritzak arautu eta kudeatzen ditu. 2021. urtean, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2021eko otsailaren 9ko Agindua argitaratu zen. Horren bidez, laguntzen deialdia egin zen, 2020/2021 ikasturtean 3 eta 14 urte arteko seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeko. Agindu horren arabera, 2020ko irailaren 1etik 2021eko ekainaren 30 bitarteko aldia da diruz lagun daitekeena.

Azken alarma-egoera 2021eko maiatzaren 9an amaitu zen, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko, eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak 0 eta 14 urte arteko seme-alabak zaintzeko langileen kontratazioa modu iraunkorren diruz laguntzea erabaki du. Horrez gain, zaintzaileak kontratatzeagatik familientzako laguntzei buruzko arautegi osoa legezko gorputz batean bakarrik bateratu zuen. Horrek, familia eta lan bizitza uztartzeko laguntzei buruzko 164/2019 Dekretuaren V. kapituluaren indargabetzea ekarri du.

2. Aurretiko gogoetak

2.1. Egoeraren diagnostikoa

Gaur egun, EAren jaiotza-tasa Estatuko eta EBko batezbestekoa baino txikiagoa da ((6,7 vs 7,1, milako, eta 9,1 milako hurrenez hurren). Ratio hori 19,1ekoa zen 1975. urtean, eta Estatuaren batez bestekoaren gainetik zegoen.

Azken urteetan jaiotza-tasa txikiagotzea eragin duen faktoreetako bat amatasunaren gero eta atzeratze handiagoa izan da. Joera mantendu da 2020. urtean, izan ere, seme-alabak izan zituzten emakumeen % 79,5ek 30 urte edo gehiago zituzten. Talde ugariena 30 eta 34 urte artekoa da: jaiotza guztien % 35. Horren atzetik, 35 eta 39 urte artekoa (% 33,7), 25 eta 29 artekoa (% 13,8) nabarmen gainditzen duena.


Ugaltzeko adin egokiak eta lanean hasteko eta laneko promoziorako adinak bat datoz eta horrek oso egoera zailean kokatzen ditu emakume gazteak ondorengoak edukitzeko erabakiari dagokionez. Ama izan nahi duten gehienek enpleguarekin bateragarri egin nahi dute, eta gero eta familia gehiagotan daude biek lan egiten duten 15 urtetik beherako seme-alabak dituztenak.

Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen “Familia 2020” izeneko txostenaren arabera, elkarriketatutako pertsonen % 51en ustez, ondorengoak izateak nabarmen eragozten du emakumearen ibilbide profesionala, eta % 22ren ustez, “asko” eragozten du. Gizonen ustez, berriz, galdetutakoen % 12k bakarrik ikusten ditu eragozpen asko edo nahiko ibilbide profesionalean seme-alabak izateagatik.

EUSTATen “Lana eta bizitza pertsonala eta familia bateratzeari buruzko inkestak”, lehendabizi, nabarmentzen du 2020. urtean EAEn lan egiten ari ziren pertsonen zailtasun ertaina (4/10) aitortu zutela lana eta ondorengoaren zainketa bateratzeko, eta zertxobait handiagoa (4,2/10) seme-alabak

adingabeak artatzeko. Ez zegoen alde handirik sexuen artean adingabeak zaintzeari dagokionez. Bai, ordea, mendeko pertsonak artatzeko: emakumeentzat zailtasuna 4,4koa zen, eta gizonentzat, 3,7koa. Horrela, Euskadiko landunen % 27,7k dio zailtasun handiak dituela lana eta seme-alaba adingabeen zainketa bateratzeko, eta % 28,7k dio zailtasun-maila hori bera duela mendeko pertsonak artatzeko. Hirugarrenik, zailtasun maila handi hori landunen % 24,9k ere hautematen du lana eta jarduera pertsonalak bateratu nahi dituenean.

Bestalde, etxetik kanpo lan egiten duten emakumeek gizonak baino % 35,3 ordu gehiago ematen dituzte seme-alaba adingabeak zaintzen, eta % 43,8 gehiago mendeko pertsonak zaintzen. Horrez gain, % 37,5 denbora gehiago ematen dute etxeko lanetan, gizonak baino. Gizonak 3,4 ordu ematen dituzte egunero adingabeak zaintzen (3,3 ordu 2019an); emakumeek, berriz, 4,6 (4,7 2019an). Alde hori askoz ere handiagoa da mendeko pertsonen zainketa kontuan hartzen badugu: gizonak 1,6 ordu ematen dituzte egunero (1,5, 2019an) eta emakumeek 2,3 ordu (2019. urtean bezala). Horrez gain, etxeko lanetan, emakumeek 2,2 ordu ematen dituzte batez beste egunean, eta gizonak, berriz, 1,6 ordu (2,1 eta 1,5 ordu hurrenez hurren 2019an). Batezbesteko horiek batuz, emakumeek etxeko lanetan eta zainketa lanetan emandako denbora, guztira, 9,1 ordu dira, gizonen 6,6 orduen aurrean. Beraz, tarteak % 37,9koa da. Tarte hori, % 50,8koa zen 2018an, eta % 4,4,4koa 2019an. Horrenbestez, alde horrek beherazko joera izan du.



2.2. 14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatze laguntzen eragina

“Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailburuaren aginduaren kontrol ekonomiko eta arau-emaiaren ondorioetarako txostena, zeinaren bidez 14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatze laguntzen deialdia egiten baita” izeneko txostenak erakusten duen moduan, hau da eragin-maila:

- Hiru urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatze laguntzak, 164/2019 Dekretuak araututakoak, % 1,06 ekarri du 2021eko ekitaldian, 2022ko urtarrilaren 3an, aurrekontuko datuak kontuan hartuz, 3 urtetik beherako seme-alabak dituzten familien aldean (oinarri gisa CMT-2019 datua hartuz -34.117 familia).

- 2020-2021 ikasturtean, 3 eta 14 urte arteko seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeko ezohiko laguntza-lerroak, 2021eko otsailaren 9ko Aginduak araututakoak, 2022ko urtarrilaren 20an, % 0,32 ekarri du 3 eta 14 urte arteko seme-alabak dituzten familien aldean (oinarri gisa CMT-2019 datua hartuz -118.468 familia).

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Familia eta Haurren Zuzendaritzaren “Eraginaren ebaluazioa familiarengan” izeneko txostenaren arabera, gaur egungo neurketak 14 urtetik beherako seme-alabak dituzten, bi gurasoek lan egiten duten eta etxean zaintzaile bat kontratatzeko gaitasuna duten euskal familien % 2,25engan bakarrik izango du eragina. Hau da, ez du eraginik izango familien % 97,75engan.

2.3. Laguntza ekonomikoez harago

Aurreko guztia kontuan hartuz, eta laguntza ekonomikoen egitekoa onartuz, Kontseilu honek, beste neurri eta baliabide batzuk bilatzea gomendatzen du, seme-alabek 14 urte bete arte.

Gure ustez, gaur egun erabiltzen den formulak familia askok hartu nahi ez duten, edo beren gain hartu ezin duten erantzukizuna ekartzen du, eta horrez gain, ziur asko, ez dute laguntza horien berri. Horrez gain, araua dagoen moduan, beste zailtasun bat egongo da, izan ere, kontratazioari aurre egin beharko dute, eta laguntza baliabide elektronikoen bidez bakarrik eskatu beharko dute.

Kontsulta organo honen 4/18 irizpenean jasotzen diren gogoetekin bat, familia politikaren gaur egungo ikuspegiak aurrera egin behar du, eta ikuspegi integralagoa izan. Hau da, seme-alaben hazkuntzak ekartzen dituen gastuak arintzeaz gain, hori zailtzen duten eragozpenak kendu ere egin beharko lirateke, eta azpiegitura multzo zabala prestatu, unibertsala dena, gizarte, ekonomia, kultura edo lan testuingurua errazen duena.

Gure ustez, funtsezkoa da kalitate oneko zerbitzu eta ekipamenduen eskaintza zabala finkatzea, familiek, nahi duten familia izan dezaten, eta beren bizitzako esparru desberdinak egoki batera ditzaten.

Izan ere, Familia eta Haurren Zuzendaritzak, galdetzen diguten arauaren “Eraginaren ebaluazioa familiarengan” izeneko txostenean dioenarekin ados gaude: “Eusko Jaurlaritzak bateratzeko laguntzen beste egokitzapen batzuk egiten jarraitu behar du, familia guztien uztartze beharrei erantzuteko, eta ez bakarrik maila ekonomiko altua dutenen, eta horrenbestez, etxean zaintzaileak kontrata ditzaketen familien beharrei”.

3. Arauaren balorazio orokorra

Dekretu proiektuak familien eta haurren aldeko Euskal Itunari egokitzeko asmoa erakusten duten zenbait adibide jasotzen ditu klausuletan. Gogoratzten dugu, itun horren bidez, sinatu zuten erakundeek, euskal gizarteak aurre egiten dizkion erronkekin konpromisoa gain hartzen zutela. Horien artean daude jaiotze-tasa baxuak, ezinbesteko aukera-berdintasuna edo gizarte arduratsua bultzatzea. Asmo horren adibideak dira:

- Laguntzaren estaldura handitzea, adingabeak 14 urte bete arte.
- Familia moten aniztasuna errespetatzea (2. art.).

- Familia uztartzea erraztea, bikoteko bi kideen erantzunkidetasunarekin, eta emakumeak lan munduan jarraitzeak edota sartzea saiatuz (7.5. artikulua).
- Behar edo ahultasun handieneko egoerak bereziki artatzea (7.5. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan ezarritako salbuespenak).
- Laguntza ekonomia, kontratatutako pertsonaren Gizarte Segurantzako kotizazioaren bidez izapidetzea (3. art.).
- Gurasoak egon daitezkeen eta babes daitezkeen egoeren aniztasuna handitzea (besteren kontura lan egitea, autonomoak edo ezintasun iraunkor osoa, absolutua edo baliaezintasun handia).

(...)

Hala ere, dagoeneko aipatu dugunez, familia politikaren gaur egungo ikuspegiak aurrera egin behar du, eta ikuspegi integralagoa ezarri. Horrez gain, beste neurri eta baliabide batzuk aztertu behar ditu, seme-alabek 14 urte bete arte.

4. FLLren garapenari eta 164/2019 Dekretuaren V. Kapituluaren indargabetzeari buruz

FLLren 12. artikulua ezartzen duen moduan, Eusko Jaurlaritzak norberaren, familia eta lan bizitza uztartzen laguntzeko emango dituen laguntza ekonomikoak mota honetakoak izango dira:

- a) Eszedentzia edo lanaldi murrizketa egoeran dauden langileentzako laguntza ekonomikoak, seme-alaba adingabeak zaintzeko.
- b) Eszedentzia edo lanaldi murrizketa egoeran dauden langileentzako laguntza ekonomikoak, mendekotasun egoeran dagoen pertsonak zaintzeko.
- c) Familiak haur eskoletako gastuak ordaintzeko egindako ekarpenetan laguntzeko laguntza ekonomikoak.
- d) Seme-alabak etxean zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzak.
- e) Enplegatzaileentzako laguntza ekonomikoak, seme-alaba adingabeak zaintzeko eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeko, eszedentzia eta lanaldi murrizketa egoeran dauden langileen ordezkioak kontratatzeko.

Urriaren 22ko 164/2019 Dekretuak, familia eta lan bizitza uztartzeko laguntzei buruzkoak (baita horren aurrekoa ere, ekainaren 29ko 177/2010 Dekretua, familia eta lan bizitza uztartzeko laguntzei buruzkoa), lehen artikulua arabera, Eusko Jaurlaritzak, enplegu eta gizarte politiken arloan eskumena duen Sailaren bidez, familia eta lan bizitza uztartzeko politikaren barruan, emango dituen laguntzak arautzea du helburu. Mota honetakoak izango dira:

- a. Eszedentzia edo lanaldi murrizketa egoeran dauden langileentzako laguntzak, seme-alabak zaintzeko.
- b. Eszedentzia edo lanaldi murrizketa egoeran dauden langileentzako laguntzak, mendekotasun egoeran edo muturreko osasun-larritasun egoeran dauden senideak zaintzeko.
- c. Eszedentzia edo lanaldi murrizketa egoeran dauden langileentzako laguntzak, mendekotasun

egoeran edo muturreko osasun-larritasun egoeran dauden senideak edo seme-alabak zaintzeko.

- d. Langileak kontratatzeko laguntzak, seme-alaba adingabeak zaintzeko.

Dagoeneko aipatu dugunez, familia politikaren gaur egungo ikuspegiak aurrera egin behar du, eta ikuspegi integralagoa ezarri. Horrez gain, beste neurri eta baliabide batzuk aztertu behar ditu.

Horregatik, ezinbestekotzat jotzen dugu, lehendabizi, FLLk ezartzen zuen esparrua, eta bereziki 12. artikuluan ezarritako laguntza ekonomikoak, osorik garatzea. Bigarrenik, jatorrizko Dekretutik (164/2019 Dekretua) ez banatzea han kontuan hartutako laguntza-lerroak, eta hirugarrenez, zerbitzu eta ekipamenduen aukera zabala finkatzea, familiei gizarte, ekonomia, kultura eta lan esparruak modu egokian bateratzeko aukera emateko.

Hamabigarren artikuluan ezarritako laguntza ekonomikoei dagokienez, norberaren, familia eta lan bitzita uztartzen laguntzeko, egiaztatzen dugu familiek haur eskoletako gastuak ordaintzeko egindako ekarpenetan laguntzeko laguntza ekonomikoen lerroa ez dela arauz garatu, eta gure ustez, ezinbestekoa da garatzea uztartzea errazteko.

Dagokigun laguntza-lerroari dagokionez, hau da, seme-alaben zaintzaileak kontratatzeko laguntzei dagokionez, orain aurkeztu den dekretu proiektuak, aurreko arauak ez bezala, laguntza-lerro bakarra arautzea jasotzen du norberaren bitzita uztartzen laguntzeko. Horrela, aipatutako 164/2019 Dekretuaren V. kapituluak indargabetzen du (kapitulu horrek, seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzak arautzen ditu), eta arau horrek indarraldia mantentzen du, batera jaso diren uztartzearen gainerako laguntza-lerroen arautzeari dagokionez.

Gure ustez, laguntza-lerro hori 164/2019 Dekretuaren laguntzetatik ateratzeak ez du laguntzen FLLk bere xedean proposatzen duen bateratze ikuspegian (“familia politika integralerako esparrua eta oinarriak ezartzea”), eta horregatik, ez gaude ados jatorrizko Dekretutik bereiztearekin.

5. Etxeko langileentzako Sistema Bereziaren alta emanda dauden pertsonak kontratatzeari buruz

Dekretu proiektuaren 3.1. artikulua haxe ezartzen du: “diruz lagun daiteke Gizarte Segurantzako Araubide Orokorren barruan dagoen etxeko langileentzako Sistema Bereziaren alta emanda dauden pertsonen kontratazioa, 14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko”.

Laguntza, kontratatutako pertsonaren Gizarte Segurantzaren bidez bideratzea aintzat hartzen dugun badugu ere, enplegu murgilduak agertzen eta enplegua sortzen laguntzen duelako, beste batzuetan adierazi dugun moduan (10/19 irizpenean), ez dugu ulertzen zergatik lotzen duten Etxeko langileentzako Sistema Bereziarekin, beste kontratazio formula batzuk baztertuz, non langileak alda emanda egon daitezkeen Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean.

Beste batzuetan aipatu dugun moduan, ez dugu ulertzen Sistema Berezi horretan alta emanda dauden pertsonen kontratazioa mugatzea, une honetan, harekin lotzen ez diren uztartzea errazteko zerbitzuak eskaintzen direlako. Gogora dezagun, esaterako, goizeko zaintza zerbitzua, edo eskola-orduaren ondorengo arratsaldeko zaintza. Haur eta Lehen Hezkuntzako neska-mutilen ordutegia handitzeko beharrari erantzuten dioten zerbitzuak dira, lan-bitzita eskolako ordutegiarekin bateratzen laguntzeko. Neska-mutilak zaintzeko zerbitzuaren antolaketa eta kudeaketa neska-mutilak matrikulatuta dauden ikastetxeko gurasoen elkarrekin egiten du. Gelak edo eremuak ikastetxeak berak uzten ditu, elkarrekin horrek kudea ditzan. Zerbitzua enpresa batek eskaintzen du, eta langileak Araubide Orokorrean kontratatzen dira, ikasturterako, neska-mutilak zaintzeko betebeharrarako.

Horrez gain, laguntza horiek lan sektore horretarako ematean, ez dakigu zer kontratu egin diren aurreko urtean, ez eta kontratuaren baldintzak zein izan ziren ere. Hori, laguntza hauetan aitortutako helburuetako bat, “Kontrol ekonomiko eta arau-emailearen ondorioetarako txostenean” aipatzen den moduan, hauxe bada ere: “etxeko lanak eta etxeetan egindako zainketak gizarte eta ekonomia arloan aintzatestea”.

“Kontrol ekonomiko eta arau-emailearen ondorioetarako txostena” (15. or.)

“Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 49.8. artikulua hauxe ezartzen du: “Kasuan kasuko ekitaldi ekonomikoa amaitzean, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio okorreko sailek eta erakunde autonomiadunek diru-laguntza jasota aurrera eraman diren programak aztertuko dituzte, emaitzak zenbatekoak izan diren ikusteko, gizartean zenbateko eragina izan duten eta zenbateraino diren erabilgarriak jakiteko”.

Laguntza horien helburua da bi gurasoen familia eta lan bitzta uztar daitezen sustatzea (...).

Gaineratu behar dugu laguntza horien helburuak ere badirela emakumeek beren lan eta jarduera profesionalak garatzen jarraitzea, eta bestalde, etxeko lana eta etxe barruan egindako zainketak gizarte eta ekonomia arloan aintzatestea”.

6. Neurri berriak eta uztartzeko baliabideak

Uztartzeko behar guztiei erantzuteko, gure ustez, aurretik azpimarratu dugun moduan, seme-alaben hazkuntzak ekartzen dituen gastuak arintzeaz gain, hazkuntza zailtzen duten eragozpenak kendu ere egin beharko lirateke, eta Ekipamendua multzo zabala prestatu, unibertsala dena, gizarte, ekonomia, kultura edo lan testuingurua errazen duena.

Horregatik, uztartzeko neurri eta baliabideen artean, honako hauek beharko lirateke, gure ustez:

- Familiek haur eskoletako gastuak ordaintzeko egindako ekarpenetan laguntzeko laguntza lerroak arauen bidez garatzea, FLLren 12. artikuluan ezarrita dagoena, eta garatu ez dena.
- 0 eta 3 urte arteko neska-mutilentzako Haur Eskolak bultzatzen jarraitzea, doan, edo prezio egokian, eta kalitate onarekin.
- Eskolak hasi arteko goizeko zaintza zerbitzua, jantoki zerbitzua eta eskola-orduen ondorengo zainketa zerbitzua diruz laguntzea, Haur eta Lehen Hezkuntzako neska-mutilentzat, familia-errentaren eta familia osatzen duten seme-alaben kopuruaren arabera.
- Zainketa eta uztartze zerbitzuak edota azpiegiturak gaitzea ikastetxeetan, behar bezala egokituta daudenak, hala nola, eskolak, udal zentroak, kiroldegia, 14 urte arteko neska-mutil eta gazteentzat, eskolaz kanpoko jarduerak egiteko (multikirola, ingelesa, musika, eskulanak...), eta familiak kontratatutako zerbitzuak ekartzen duen gastua ordaintzen laguntzea, familia-errentaren eta familia osatzen duten seme-alaben kopuruaren arabera.
- Aisialdiko azpiegitura eta zerbitzu publikoak handitzea, 14 urte arteko neska-mutilentzat, ikasleen oporretan, eta familiak kontratatutako zerbitzua ekartzen duen gastua ordaintzen laguntzea, familia errentaren eta familia osatzen duten seme-abalen kopuruaren arabera.

- Berdintasun Ministerioaren Erantzunkideei buruzko Planaren premisei jarraituz¹, helburuen artean, 16 urtetik beherako seme-alabak dituzten familientzako zainketa profesionaleko poltsak eratzea eta kalitate oneko enplegua sortzea duten proiektuak abian jartzea, Planean ezarritako profil profesionalen poltsetan sustatuz.

Hori guztia, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2019ko ekainaren 20an ezarri zuten 2019/1158 Zuzentarauak, gurasoen (eta zaintzaileen) familia eta lan bitzta uztartzeari buruzkoak, beste agertoki batean jartzen bagaitu izan ezik.

IV.- GOGOETA BEREZIAK

4. artikulua. Baliabide ekonomikoak eta laguntzak emateko prozedura.

Laugarren puntuan, diruz laguntzeko baldintzak betez, ekitaldi horretarako bideratutako aurrekontuko kreditua agortzeagatik, diruz lagundu ezin diren eskaerak aipatzen dira.

Hauxe adierazten da: *“aurrekontuko ekitaldi batean, ekitaldi horretako aurrekontuko kredituekin erantzun ezin diren diruz lagun daitezkeen egoerei buruzko laguntza-eskaerarik balego, hurrengo ekitaldian ezarri egotzi ahalko dira. Kasu horretan, ez da eskaera berriro aurkeztu beharko, betiere egoera horiek, Dekretu honetan, laguntzak lortzeko ezarritako baldintzak betetzen badira.”*

Geure buruei galdetzen diegu *“ahalko dira”* horrek, ea esan nahi duen Administrazioaren eskumenean dagoela, ala eskatzaileak eskatu behar duen.

Badakigu kontu hori argitu behar dela, aurreko artikuluen arabera, heltzen den ordenak lehentasuna duelako emateko orduan (eskatutako baldintzak betetzen badira, noski). Noiz hartzen da, lehenengoak, aurreko urteko eskaeretatik datozela?

5. artikulua. Laguntzaren zenbatekoa eta finkatzeko irizpideak

5.c) atalak hauxe dio: *“50.000 eurotik gorako familia-errenta estandarizatu bati, enplegatzaileak, Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean ezarritako Etxeko langileentzako Sistema Bereziari, zaintzailea kontratatzeagatik ordaintzen dion kopuruaren % 25 diruz lagunduko da.”*

Testutik ondorioztatzen da ez dagoela familia errentako gehieneko muga ekonomikorik % 25eko laguntza jasotzeko. Horrela, errenta handiko tartean daudenek, benetan behar ez duten laguntza bat jaso dezakete. Gure ustez, horrek ez dauka zentzurik.

Pixkanaka egiteak programaren kudeaketa zail dezakeela uste dugu, baina ez da inola ere aitzakia izan behar generikoegiak diren tartek ezartzeko.

¹ Erantzunkideei buruzko planaren (2021eko martxoaren 9an onartutakoa) helburuen artean dago “16 urtetik beherako neska-mutilak eta gazteak dituzten familien uztartzea erraztea, emakume eta gizonen arteko berdintasun ikuspegi batetik”.

Erantzunkideei buruzko planak autonomia-erkidegoei proposatzen dizkien proiektuen tipologiaren artean daude:

1. Zainketa profesionaleko poltsak, 16 urtetik beherako seme-alabak dituzten familientzat:

a) Kalitate oneko zainketa profesionaleko zerbitzuak gaitzea 16 urtetik beherako neska-mutil eta gazteentzat, esparru horretan zerbitzuak ematen dituzten langileen lan-eskubideak bermatuz. Zerbitzu horiek, etxean emango dira, astero, ezarritako ordu kopuru jakin batean.

b) Kalitate oneko zainketa profesionaleko zerbitzuak gaitzea 16 urtetik beherako neska-mutil eta gazteentzat, esparru horretan zerbitzuak ematen dituzten langileen lan-eskubideak bermatuz. Zerbitzu horiek, etxean emango dira, astero, ezarritako ordu kopuru jakin batean.

2. Kalitateko enplegua sortzea:

a) Besteak beste, jarduera soziokulturalak teknikiariak, aisialdiko begiraleak, gizarte eta kirol animazioko goi-mailako teknikiariak, Haur Hezkuntzako irakasleak, haurtzaindegi laguntzaileak eta haurtzaindegiko langileen enplegua sustatzea gazteak zaintzeko lan-poltsetan.

b) SEPErekin edo autonomia-erkidegoko enplegu erakundeekin hitzarmenak sinatzea, zainketa formalen eta ez-formalen sektorean lanbide-esperientzia duten pertsonak zaintzeko poltsetan sar daitezen sustatzeko helburuarekin, 45 urtetik gorako emakumeak bereziki.

9. artikulua. Laguntza eskaerak eta laguntza espedientearen izapidetze elektronikoa

Bigarren puntuan hauxe ezartzen da: *“Eskaera aurkezteko eta izapidetzeko baliabide elektronikoak erabiliko dira”*.

Gure ustez, laguntzak bide elektronikotik bakarrik kudeatzea eragozpena izan daiteke zenbait kasutan, baina kotizazioak bide elektronikotik bakarrik kudeatu behar izatea ez da argudio apelaezina (zioen azalpenean esan den moduan). Gutxienez, salbuespen gisa, arreta pertsonalizatua emateko aukera eman beharko litzateke.

12. artikulua. Kudeaketa, ebazpena, ebazteko eta aldatzeko epeak, eta baliabideak

Hirugarren puntuak hauxe ezartzen du: *“ebazteko eta interesdunari ebatzitakoa jakinarazteko gehieneko epea sei hilekoa izango da, eskaera egoitza elektronikoa erregistratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Epe hori igarotakoan, ebazpena ez bada jakinarazi, diru-laguntzaren eskaera gaitzetsizat hartuko da, “Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretu bidez onartutakoaren, 51.9. Artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.”*

Gure ustez, eskaerak ebazteko epea 6 hilekoa izatea luzeegia da, kontuan hartzen badugu, eskaera, kontratazioa hasten denetik, 3 hilabete igarotakoan, eta ondorengo aldietan, 4 hilabete igarotakoan bakarrik auzerik daitekeela (10.2. artikulua).

Testuinguru horretan, bereziki nekeza da, hainera, isiltasun negatiboa ezartzea.

16. artikulua. Beste laguntza batzuekiko lehia

Lehen puntuan ezarritako bateraezintasunen araubidea oso zorrotza dela uste dugu.

1.– Dekretu honetan araututako laguntzak ez dira bateragarriak II. Kapituluaren seme-alabak zaintzeko, lan eszedentzian edo lanaldi murriztuan dauden langileentzako laguntzak– eta III. Kapituluaren mendekotasun egoeran edo muturreko osasun-larritasun egoeran dauden senideak zaintzeko, lan eszedentzian edo lanaldi murrizketan dauden langileentzako laguntzak- araututakoekin, urriaren 22ko 164/2019 Dekretuari, familia eta lan bizitza uztartzeko laguntzei buruzkoari, dagokionez. Bateraezintasun horiek, familia-unitatearekiko aplikatzen dira.

Hori horrela, pentsa dezakegu 7.5. artikuluan jasotzen diren salbuespen berak aplikatu beharko liratekeela (funtsean dauden arrazoi berdinegatik: Laguntza eskatzen duten ahultasun egoera bereziak).

Azkenik, **8. Baldintzak egiaztatzeko eskatutako agiriak eta 9. Laguntza eskaerak eta laguntza espedientearen izapidetze elektronikoa** artikuluetako aurreikuspen batzuk, une honetan egokiak diren ala ez alde batera utzita, Agindu bidezko erregulazio batenak direla ematen du, izan ere, egokitzapen malguagoa egiten uzten dute, aukera berriro kontuan hartu behar bada.

V.- ONDORIOA

Seme-alabak dituzten familien ekarpenak balio handia du, bai familiarentzat, bai gizartearentzat oro har, eta une honetan, gaur egungo uztartze beharrei aurre egin ahal izateko, familia politikaren ikuspegia aldatu behar da, eta ikuspegi integralagoa izan.

Gaur egungo testuinguruan, seme-alaben hazkuntzak ekartzen dituen gastuak arintzeaz gain, ezinbestekoa da gizarte osoak eta erakunde publikoak erantzukizuna ere hartzea, bereziki 14 urtetik beherako neska-mutil eta gazteen zainketan. Horrez gain, beste neurri eta baliabide batzuk aztertu behar dira, norberaren bizitza, familia eta lan bizitza uztartu ahal izateko, seme-alabek adin hori bete arte.

Bilbon, 2022ko martxoaren 21ean

O.E. Presidentea

Emilia M. Málaga Pérez

Idazkari nagusia

Olatz Jaureguizar Ugarte